



V. Foro Sozialaren gomendioak egiaren erronkari aurre egiteko

Lehen Foro Sozialaren (2013) ondorioetan honakoa jasotzen zen:

Egia eta memoria babestea iraganari zintzotasunez aurre egiteko eta etorkizuneko elkarbizitzaren oinarriak finkatzeko

11.- Erakundeek egia, justizia eta adiskidetze prozesu zabal bat eta jendarte osoa barne hartzen duena bultzatzea gomendatzen dugu. Oinarrizko Giza Eskubide guztien errespetutik abiatuta etorkizuneko elkarbizitzarako oinarriak sortzea da helburua. Hori izanik xedea, beharrezkoa da jazotakoari eta bere jatorriari heldzea, biktima guztiak aintzatestea eta dagokien ordaina ematea eta eragindako kalte guztiak aitortzea. Era berean, Egia eta Adiskidetzarako mekanismo bat horri guztiari aurre egiteko tresna baliagarria dela ulertzen dugu, erakundeek bultzatu edo babestutako mekanismoa izanik eta independientea, zeinetan gizarte zibila den protagonista.

12.- Kontatzeko eta gogoratzeko era ezberdinak erraztea gomendatzen dugu, gertatutakoa ukatu gabe, sektore sozial eta politiko guztietan autokritika bultzatuz eta egindako akats larriak aintzatesteko jardun zintzoa bultzatuz. Ildo honetatik, biktima eta giza eskubideen urraketa guztien datu-base ofizial, publiko eta osatu bat egitea premiazkoa da, galdu edo lausotu aurretik jazotakoaren memoria gordetzeko.

Azkenik, dokumentu honetan jasotako jarduerak biktima guztiek daukaten egia, justizia eta ordaintza eskubideekiko errespetuarekin bateragarriak izan behar direla uste dugu.

Azken hamarkadetan bizi izandako gatazkaren eta bere ondorioen inguruan bost urtez lanean gogor jardun ostean, pasa den urriaren 5ean eta 6an 5. Foro Soziala antolatu genuen, "Egia jakiteko eskubidea: biktimen aitortza eta erreparaziorako mekanismoak" izenburupean.

V. Foro Sozial honetan jasotako ideietatik, bereziki nabarmendu nahi genituzke honako hausnarketak:

Gertatutakoa ezagutzea eta ezagutzera ematea: egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak oinarri dituen prozesua bermatzeko giltzarria

Gertatu den ororen egia ezagutzea eta ezagutzera ematea, biktimen oinarrizko eskubide izateaz gainera, bermea da berriro errepikatu ez dadin jasandako tragedia. Egia ezagutzea oinarrizko elementua da biktima guztiei zor zaien justizia eta erreparazio osorako bidean aurrera egiteko. Egiarik gabe, ez dago erreparaziorik.

Egia ezagutzeak, egia osoa, eta egia osoak, libreago egingo gaitu gizarte gisara.

Egia ezagutzea oinarrizko elementua da etorkizuneko elkarbizitzaren oinarriak eraiki ahal izateko. Onartzen eta aitortzen dugu egia horrek poliedrikoa beharko duela izan, eta eraikia beharko dela izan egia ezberdinen bidez, iraganari buruzko ikuspuntu, arrazoi eta ondorio anitzak aintzat hartuaz.

Lan horretan sakontzeko, uste dugu beharrezkoa dela atmosfera sozial berri bat sustatzea arlo politiko, sozial eta instituzional guztietatik, egiaren eraikuntza posible egin ahal izateko martxan jarriaz mekanismo eta ekimen anitzak.

Egiaren bilaketa hori ezin bihurtu daiteke, beste behin, guda eremu, non bakoitzak bere lubakiak eraikitzen dituen besteari aurre egiteko; egia anitzak eraikitzeko espazioa behar du izan, gizarte gisara libre izan gaitzen. Zentzu horretan, oinarrizko ariketa da lengoia barneratzaile berri baten erabilera, konfrontazio garaiko terminoak ekidinaz, hitza armagabetuz.

Bidaia bat ere baden bilaketa eta, aldi berean, sendatzeko baliagarri izango zaiguna.

Egia pluralaren eraikuntza hori, errealitate anitzak argitara aterako dituen eta horietariko bakoitzari dagokion aitortza emango diona, prozesu bat izan beharko litzateke, gizarte gisara ditugun zauriak sendatzeko ere baliagarri izango zaiguna, ezagupenaren eta oroitzearen bidez. Uste dugu garrantzia maila berbera dutela egiten dugunak egiteko moduek.

GOMENDIOAK

V. Foro Sozialak honakoa gomendatzen du, egia poliedrikoaren eta honen arrazoen eraikuntzan aurrera egite aldera:

1. Ahalik eta zabalena izango den sufrimenduaren kartografia baten osaketan sakondu, atentzio bereziarekin erreparatuz generoaren eta adinaren dimentsioei.
2. Jasandako sufrimendu guztien aitortza ofizial eta instituzionala sustatu.
3. Herri mailatik egia berreskuratzeko prozesuak sustatu, jadanik martxan diren dinamikak babestuz, eredu positiboak ezagutzera emanez edo herri mailako sufrimenduaren kartografiaren egikaritzea saioak lagunduz. Modu berean, herri mailako ikerketa batzordeak edo sufrimendu anitzen ingurukoak martxan jartzea lagundu, gertatutakoa argitzen eta ikustarazteko. Horrez gain, entzute ariketak sustatu, gertukoak, pertsonen arteko topaguneak eraikitzea posible egingo dutenak eta, dagokion kasuetan, erreparaziorako mekanismo izatera heldu daitezkeenak.
4. Informazioa berreskuratzeko mekanismoak sustatu eta lagundu, adibidez, erakundeetako artxiboen zabaltzea, oraindik argitu gabeko kasuei dagokienez, elkarbizitza demokratikoa helburu duen dinamika baten baitan eta bermatzeko biktima guztiei dagokien egia jakiteko eskubidea.
5. Sustatu elkarbizitzaren eraikuntza helburu duen justizia eredu berri baten inguruko eztabaida politiko eta soziala.
6. Gatazka deritzon horren arrazoiak aztergai izango dituen Batzorde Historiko baten sorreraren alde egin, gure herrian elkarbizi diren ikuspegi eta sentsibilitate anitzak aintzat hartuta, helburu izango duena adostasun minimo bat erdiestea honen jatorriaren inguruan eta denboran izandako luzapenaren inguruan.
7. Dei egitea hezkuntza eremuko sektore sozial, pedagogiko eta sindikalei, agente aktibo bilaka daitezten, eta ez soilik planen eta proposamenen hartzaile. Hezkuntza mundutik partekatzea moduak, edukiak eta prozedurak, prozesu zabal eta multidisziplinarra abiatzeko egia, justizia eta berradiskidetzari dagokionez.
8. Honekin guztiarekin, proposatzen dugu eztabaida soziala sustatzea, etorkizunean aukerazko Egiaren Batzorde baten oinarrien eraikuntzari ekiteko.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduan